



BARATZE BASERRI ESKOLA

HAUR HEZKUNTZA



HAUR HEZKUNTZA – HEZIKETA PROIEKTUA

1. Aurkezpena
2. Curriculumarekiko lotura
3. Konpetentziak
4. Helburuak
5. Metodologia
6. Egonaldiaren antolaketa
 - a. Eguneroko ordutegia
 - b. Egonaldiaren iraupena eta tailerrak
 - c. Irakasleen papera
7. Hezitzaileen rola
8. Tailerrak
9. Baliabideak

AURKEZPENA

Baratze Baserri Eskola ingurune natural paregabean kokatutako hezkuntza-gunea da, eta 4–6 urte bita

rteko haurrentzat esperientzia hezitzaile esanguratsuak eskaintzen ditu. Gure helburua da hurrek natura, animaliak eta landa-ingurunea zuzenean ezagutzea, esperientziaren, jolasaren eta bizipenaren bidez.

Baratzen egiten dugun hezkuntza-lana haurren garapen integrala sustatzera bideratuta dago: garapen pertsonala, soziala, emozionala eta kognitiboa modu orekatuz lantzen ditugu. Egonaldiak aukera paregabea dira hurrek ohiko testuingurutik kanpo ikasteko, bizikidetzaren esperientzarako eta autonomia pertsonala indartzeko.

Esperientzia hauek ikastetxean jasotzen duten hezkuntza-prozesuaren osagarri dira, eta ikaskuntza esanguratsua bultzatzen dute, haurra bere ikaskuntzaren protagonista bihurtuz.

MARKO PEDAGOGIKOA ETA CURRICULUMAREKIKO LOTURA

Baratze Baserri Eskolako proposamen pedagogikoa **Haur Hezkuntzako 2. zikloko (4–6 urte) Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumean** oinarritzen da, eta haren printzipio nagusiak praktikara eramaten ditu testuinguru natural batean.

Gure jarduera-proposamenek honako oinarri hauek dituzte:

- **Haurraren ongizate emozionala** ikaskuntzaren abiapuntu gisa.
- **Jolasa** ikaskuntza-prozesuaren ardatz nagusi modura.
- **Ezagutza, esplorazioa eta behaketa**, natur ingurunean.
- **Erritmo eta interesen errespetua**, haur bakoitzaren garapenari egokitzuz.
- **Autonomia pertsonalaren garapena**, eguneroko bizitzako egoeren bidez.
- **Bizikidetzaren eta harreman sozialak**, talde-dinamiken bidez.

Curriculumak definitzen dituen **eremuak** modu globalean lantzen dira, **konpetentzia espezifikoak** garatzen diren heinean.

Harmonian hazten

Hurrek beren burua ezagutzen dute, emozioak adierazten ikasten dute eta eguneroko ekintzetan autonomia lantzen dute (jantzi, garbitu, parte hartu, ardura txikiak hartu...). Alderdi pertsonala garatzeaz gain, soziala ere garatu egiten da.

Ingurunea ezagutzea eta esploratzea

Natura, animaliak, landareak eta baserriko jarduerak ezagutzen dituzte, ingurunearekiko jakin-mina, errespetua eta zaintza garatuz.

Komunikazioa eta errealitatearen adierazpena

Hurrek ahozko hizkuntza, gorputz-adierazpena, musika eta adierazpen plastikoa erabiltzen dituzte bizipenak partekatzeko, galdetzeko eta harremanak sortzeko.

KONPETENTZIAK

Haurren garapen integrala eta harmonikoa bultzatu nahi da, dimentsio guztietan: fisikoan, emozionalean, afektiboan, sozialean, kognitiboan eta artistikoan, autonomia pertsonala sustatuz eta beren buruaren irudi positiboa eta orekatua sortuz. Hori dela eta, proposamenek haurren funtsezko konpetentziak garatzera bideratuta egongo dira:

1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.
2. Konpetentzia eleaniztuna.
3. Matematikarako konpetentzia eta zientziako, teknologiko eta ingeniariatzako konpetentzia.
4. Konpetentzia digitala.
5. Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko konpetentzia.
6. Herritarren konpetentzia.
7. Ekintzaitza-konpetentzia.
8. Kontzientzia eta adierazpen kulturalerako konpetentzia

HELBURUAK

Baratze Baserri Eskolako egonaldien helburu nagusia da 4–6 urte bitarteko hurrei **esperientzia hezitzaile aberasgarria** eskaintzea, beren garapen integrala sustatuz eta naturarekin harreman zuzena izatea ahalbidetuz.

Helburu nagusiak honako hauek dira:

- Haurren **garapen pertsonala, soziala eta emozionala** sustatzea.
- **Autonomia pertsonala** indartzea eguneroko egoeren bidez.
- **Jakin-mina, esplorazioa eta behaketa** bultzatzea ingurune natural batean.
- **Bizikidetzeta, lankidetzeta eta elkarrekiko errespetua** sustatzea.
- **Emozioen adierazpena eta kudeaketa** lantzea.
- Natura, animaliak eta ingurunea **ezagutu, errespetatu eta zaintzeko jarrerak** garatzea.
- **Komunikazio-gaitasunak** indartzea, ahozko hizkuntza, gorputz-adierazpena eta adierazpen artistikoen bidez.

METODOLOGIA

Baratze Baserri Eskolako metodologia **ikuspegi global eta integratzailean** oinarritzen da, **jolasa** eta **esplorazioa** ikaskuntzaren ardatz nagusi gisa hartuta.

Honako printzipio metodologiko hauek gidatzen dute gure lana:

- **Jolasa** ikaskuntzaren oinarri nagusi gisa, haurren interes eta motibazioetatik abiatuta.
- **Ikaskuntza esanguratsua**, esperientzia errealetan eta testuinguru naturalean oinarritua.
- **Esperientzia, esplorazioa eta esperimentazioa**, haurrek ikas dezaten egiten, ukitzen, behatzen eta probatzen.
- **Erritmo indibidualen errespetua**, haur bakoitzaren garapen-maila kontuan hartuz.
- **Parte-hartze aktiboa**, haurra bere ikaskuntzaren protagonista izanik.
- **Ongizate emozionala**, konfiantzazko giro segurua sortuz.
- **Bizikidetzeta eta ikaskuntza kooperatiboa**, talde-dinamiken bidez.

Irakasle eta hezitzaileek **gidari eta laguntzaile** rola dute, haurren ekimena eta jakin-mina errespetatuz, ikaskuntza-prozesua aberasteko egoera egokiak sortuz.

EGONALDIAREN ANTOLAKETA

Baratzen egiten diren egonaldiak **esperientzia hezitzaile biziak** dira, hurrek landa-ingurunean eta naturarekin harreman zuzenean ikasteko aukera izan dezaten.

Eguneroko jardueretan:

- Jolasa, tailerrak eta esplorazioa uztartzen dira.
- Ohitura eta errutinek **segurtasuna eta egonkortasuna** ematen diete hurrei.
- Elkarbizitza lantzen da, besteekiko harremanak eta taldeko dinamikak indartuz.

Egonaldiaren antolaketa haur txikien beharretara egokituta dago, atsedeen-tarteak, erritmo egokiak eta giro lasaia bermatuz.

Antolaketa eta taldeen banaketa

Baratze Baserri Eskolara iristen direnean, hurrei **ongi-etorria emateko harrera lasaia eta segurua** egiten zaie. Lehen momentutik giro atsegina sortzea da helburua, hurrek konfiantza har dezaten eta espazioa pixkanaka ezagutu dezaten.

Lehenengo egunean:

- Hezitzaileak aurkezten dira eta haurren erreferente bihurtzen dira.
- Espazio nagusiak ezagutzen dituzte.
- Oinarrizko arau sinpleak azaltzen dira, elkarbizitza errazteko.
- Taldeak eta logelak antolatzen dira.

ORDUTEGIA

8.30	<ul style="list-style-type: none">• Denok gora!
9.00 - 9.30	<ul style="list-style-type: none">• Gosaria
9.30 - 11.00	<ul style="list-style-type: none">• 1. tailerra
11.00 - 11.30	<ul style="list-style-type: none">• Astialdia
11.30 - 13.00	<ul style="list-style-type: none">• 2. tailerra
13.00 - 14.00	<ul style="list-style-type: none">• Bazkaria
14.00 - 15.00	<ul style="list-style-type: none">• Astialdia
15.00 - 16.30	<ul style="list-style-type: none">• 3. tailerra
16.30 - 17.00	<ul style="list-style-type: none">• Askaria
17.00 - 18.30	<ul style="list-style-type: none">• 4. tailerra
18.30 - 19.00	<ul style="list-style-type: none">• Astialdia
19.00 - 20.00	<ul style="list-style-type: none">• Afaria
20.00 - 21.00	<ul style="list-style-type: none">• Gaubela
21.00 - 21.30	<ul style="list-style-type: none">• Kola-kao beroa
21.30	<ul style="list-style-type: none">• Ohera!

EGONALDIAREN IRAUPENA ETA TAILERRAK

		Sarrera	Irteera	Tailerrak
ASTE ERDIKO EGONALDIA	Astelehena-asteazkena	Astelehena 10.30etan	Asteazkena 14.30etan	8 tailer (ordu t'erdikoak)
	Asteazkena-ostirala	Asteazkena 15.00etan	Ostirala 17.00etan	8 tailer (ordu t'erdikoak)
ASTEKO EGONALDIA		Astelehena 10.30etan	Ostirala 15.00etan	16 tailer (ordu t'erdikoak)
BI EGUNETAKO EGONALDIA		10.30etan	15.00etan	5 tailer (ordu t'erdikoak)

Aste erdiko egonaldietan, zortzi tailer ezberdinetan adimen guztiak landuko dituzte. Baina garapen adin honetan hizkuntz adimena oso garrantzitsua denez, honi ordu eta erdiko bi saio emango dizkiogu. Izan ere, komunikazioa ezinbestekoa da bizitzako edozein momentuan besteekin interakzioan bizi baikara.

Bi egunetako egonaldietan, bost tailer bakarrik egiten dutenez ezin dituzte adimen guztiak landu. Kasu honetan aukeratu behar da eta gure proposamena hauxe da:

Tailerrak		Gauean
BI EGUNEKO EGONALDIA	5 tailer (ordu t'erdikoak)	1. Korta 2. Sukaldea 3. Zaldia 4. Eskulangintza 5. Baratza Gaubela
ASTE ERDIKO EGONALDIA	8 tailer (ordu t'erdikoak)	1. Korta 2. Korta 3. Sukaldea 4. Zaldia 5. Eskulangintza 6. Ibilbidea 7. Loragintza 8. Baratza Gaubela

Egonaldia programatzeko orduan klimatologia kontutan izan behar dugu tailerrak modu batean edo bestean bideratzeko. Irakaslegoak nahi izanez gero eskakizunen bat egin dezake Baratzen egindako ekintzak eskolakoekin erlazionatzeko edota egokitzeko.

Baserri eskolako ekintza eta tailer ezberdinak era egokian egin ahal izateko haurrak talde txikietan banatzen ditugu.

IRAKASLEEN PAPERA

Baratzen egingo den egonaldia eskolako programazioarekin ertsirik lotuta dagoen esperientzia bat izan dadin nahi dugu.

Irakasleen funtzio nagusia hurren astialdia eta gaueko zainketa da, hala ere, beti edukiko dute gure laguntza.

Hurrekin etortzen diren irakasleek ondorengo momentuetan egon behar dute hurrekin:

JANTOKIA (Gosaria- bazkaria- afaria)

GOIZEKO ASTIALDIA (11:00 – 11:30)

ASKARIAREN ASTIALDIA (16:30-17:00)

Baratzeko hezitzaileek eguerdiko eta afal osteko astialdia zainduko dute, umeekin datozen irakasleek lasai jan dezaten irakasleen gelan.

Une guztietan, ager daitekeen edozein arazo bati aurre egiteko, baserri-eskolako arduradun bat egongo da. Hala ere, gauez, irakasleak izango dira haurren azken arduradunak.

Ekintzak burutzen diren bitartean, irakasleek edozein momentuan, bideoa grabatzeko, argazkiak ateratzeko edo tailerrak nola burutzen diren ikusteko aukera daukate.

HEZITZAILEEN ROLA

Baratze Baserri Eskolako hezitzaileak dira egonaldian zehar haurren **erreferente nagusiak**. Haien lana ez da soilik jarduerak gidatzea, baizik eta haurrei **segurtasuna, entzute aktiboa eta laguntza emozionala** eskaintzea.

Haien eginkizun nagusiak hauek dira:

- Haurren ongizate fisiko eta emozionala zaintzea.
- Eguneroko errutinak eta ohiturak laguntzea (higienea, atsedenaldia, elikadura).
- Jarduerak gidatzea eta haurrek parte-hartze aktiboa izatea sustatzea.
- Harreman positiboak eta errespetuzko bizikidetzak bultzatzea.
- Behar emozionalak identifikatzea eta beharrezko laguntza eskaintzea.

Hezitzaileek **gidari eta laguntzaile** rola dute, haurren erritmoa eta interesak errespetatuz, ikaskuntza-egoera esanguratsuak sortuz.

TAILERRAK

Baratzen proposatzen diren jarduerak **haurren garapen-mailara egokituak** daude eta modu globalean lantzen dira, esperientzia-eremuak uztartuz.

Jolasa

Jolasa da ikaskuntzaren ardatz nagusia. Jolas gidatua eta jolas askea uztartzen dira, haurrek esploratzeko, sortzeko eta harremanak eraikitzeko aukera izan dezaten.

Ingurunearen esplorazioa

Baserriko ingurunea, animaliak eta natura espazio pedagogiko bihurtzen dira. Haurrek behatu, galdetu eta aurkikuntzak egiten dituzte, ingurunearekiko jakin-mina eta errespetua garatuz.

Errutinak eta eguneroko bizitza

Eguneroko ohiturek (otorduak, atsedanak, garbitasuna) **autonomia pertsonala** lantzeko aukera ematen dute, betiere haurren adinera egokituta.

Tailerrak

Tailerren bidez, haurrek:

- Naturarekin harreman zuzena dute.
- Zentzumenak lantzen dituzte.
- Materialak manipulatu eta esperimendatzen dute.
- Sormena eta irudimena garatzen dituzte.

Ondorengo hauek dira baserri eskolan gauzatzen ditugun tailerrak:

Sukaldea

Tailerra esperimentu bat izango da: elikagai gordinak elikagai jangarri bihurtuko ditugu. Egingo duten elikagaia izan daiteke: bizkotxoak, madalenak, gailetak...

Zenbaki eta neurriekin jolastuko dute (ml, mg, neurri ezberdinetako poteak...). Forma geometriko ezberdinak ikusteko aukera ere izango dute (moldeak).

Korta

Tailer honetan haurrek Baratzen bizi diren animalia guztiak ezagutuko dituzte: behiak, zaldia, ahuntzak, txerriak, oiloak, untxiak, ahateak, antzarrak, ardiak ... Hauen ezaugarriak ikusi eta azalduko dizkiegu.

Honetan hiztegia garrantzi handia hartuko du, izan ere, umeei gaiari buruzko hitz asko ikasteko aukera izango dute. Gainera, istorioak, asmakizunak, esaerak...

Baratza

Landare baten zikloa ikusteko aukera izango dute: nola ereiten, jaiotzen eta birlandatzen den. Baita landareen atalak ere: sustraiak, zurtoina, hostoak, loreak eta fruituak. Hurrek ortuko barazkiak eta frutak ezagutuko dituzte eta ortuan lan egingo dute dagokion tresneriarekin.

Tailer honetan taldean lan egingo dute bereziki. Garrantzitsua izango da taldekide eta talde guztien parte-hartzea ekintza aurrera eramateko, lankidetzaren eta laguntasuna sustatuz.

Loragintza

Loreen negutegian, hurrek lore eta landareen beharrianak ikasiko dituzte. Gainera, haziak ereingo dituzte, lurra landu, landareak birlandatu, lorategia garbituko dute. Urtaroaren arabera ekintzak aldatu egingo dira.

Tailer honetan, emozioei buruz hitz egingo dugu, loreetatik abiatuta umeen sentimenduetara ailegatuko gara. Gainera, erlaxazio ariketak egiteko aukera izango dute.

Eskulangintza

Arte tailer bat da. Hurrek haien irudimena eta sormena erabilita zerbait sortuko dute: armiarma, txorimaloa, kandela, dordoka, ... Irakasleak ekoizpenaren eredia eman arren, umeak neurri batean, askeak izango dira erabakitze nola egingo dituzten eta batzutan erabilitako materialak ere.

Eskulangintzan irudimen aktiboa estimatuko nahi dugu. Egonaldian ikusi eta esperimentatutakoa ekoizpen artistiko batean isladatzeko eskatuko zaie. Gainera, koloreak, testurak, ... ikasitako kontzeptuekin erlazioa ditzakete, irudi mentalak egin, ...

Ibilbidea

Baratze inguruko bide eta basotik ibilbide bat egitean datza. Tailer honetan zera landuko dugu: zein urtarotan gauden ikusi, basoko landareak, zuhahitzak eta animaliak aztertu...

Basotik paseatzen, umeen zentzumenak estimatuko ditugu, haurrak naturara hurbilduz. Bidean, natura usaindu, ikutu, ikusi, entzun eta dastatuko dute, hau da, natura ezagutu, bizi, sentitu eta maitatuko dute.

Zaldia

Egonaldian, haurrek zaldiz ibiltzeko aukera edukiko dute. Animalia ezagutzeaz gain, jaten eman, orraztu, ikutu eta bere gainera igoko dira.

Zaldiz ibiltzean, gaitasun motoreak jokoan jartzen ditugu: arnasketa, gorputzaren autokontrola, gorputz jarrera, oreka, e.a...

Gaubela

Afaldu ostean eta ohera joan baino lehen, ekintza ezberdinak egingo dira. Gaubelan egingo ditugun ekintzak ondorengoak izango dira: abesti bat asmatu, abesti bat interpretatu abestu gabe, diskotekan abestu eta dantzatu, ...

BALIABIDEAK

Baratze Baserri-Eskolak beharrezko giza, material eta azpiegitura baliabideak ditu Haur Hezkuntzako ikasleei zuzendutako egonaldiak modu seguruan, inklusiboan eta kalitatez garatzeko.

Giza baliabideak

Proiektua heziketa, zaintza eta segurtasun ikuspegitik bermatzeko, honako profesional-taldea dago:

- Hezkuntza-taldea: irakasle eta hezitzaile espezializatuak, tailerrak eta jarduerak gidatzeko.
- Sukaldeko langileak.
- Garbiketa- eta mantentze-zerbitzua.
- Kudeaketa eta administrazioa.

Hezitzaileek esperientzia dute ikaskuntza esperientzian, talde-dinamikan eta haurren zaintzan, eta etengabeko koordinazioa dute irakasle laguntzaileekin.

Baliabide materialak eta espazioak

Baratze Baserri-Eskolak ingurune zabal eta anitza eskaintzen du, ikaskuntza-egoerak testuinguru errealetan garatzeko:

- Baserría eta pabilioiak, jarduera didaktikoetarako egokituak.
- Korta eta animaliak.
- Baratza eta negutegiak.
- Tailer-espazioak (sukaldea, eskulangintza, zur lanketa...).
- Kanpoko naturguneak eta ibilbideak.
- Astialdirako guneak

Espazio guztiak ikasleen adinari egokituak daude eta segurtasun-irizpideak betetzen dituzte.

Osasuna eta segurtasuna

Ikasleen ongizatea lehentasuna da. Horretarako:

- Lehen sorospeneke materiala eskuragarri dago.
- Larrialdi-egoeretarako protokoloak ezarrita daude.
- Osasun-zerbitzuetara iristeko aukera azkarra bermatuta dago.
- Zaintza jarraitua egiten da eguneko une guztietan.